



Ataria Bertso Jaialdiko une bat, larunbatean, Tolosako Leidor aretoan. N. ROLDANDE ARANGUIZ

Ataria Bertso Jaialdia, urteroko hitzordua

Amaia Agirrek proposatutako gaiekin bertsoaldi ederrak eskaini zituzten bertsolariek; Leidor, beste behin, bete egin zen, eskualdeko bertsozaleentzat derrigorrezko ekitaldi bilakatu den saioarekin // 2

1,7 milioi euroko aurrekontua izango du Berastegik

Iragan urtekoa baino 200.000 euro handiagoa da, eta arlo guztiak indartzeko baliatuko dutela adierazi dute // 4

Eskola publikoa hautatzeko hamaika arrazoi daudela esan dute

Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformak eskola publikoan matrikulatzeko kanpaina aurkeztu du, babes zabalarekin // 3

'Ipuscua 1.000 urte' erakusketa zabaldu dute San Telmon

'Gipuzkoa' hitza jasotzen duen lehen dokumentu idatziaren milurtekoa ospatzeko ekitaldien barruan gauzatu dute // 5

**EGUZKITZA**
sagardotegia






Bertako sagariek
egindako sagardoa

Dastatu gure zapoa!
Aurtengo berrikuntza
(Aurrez erreserbatu)

Zabalik! Usabal Auzoa, 25 • TOLOSA • Tel.: 943 67 26 13

**zozketa**



Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu

Amak
antzerkia

Urtarrilak 26, igandea
19:30 • Villabonako Gurea antzokia

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**

Ehunka gaztetxo irten dira korrika Tolosako kaleetan

XXXVI. Ero-Etxe Krosa egin zuten herenegun, parte hartze handia eta giro ederrarekin; ikusle ugari erakarri zituen probak // 7

Naiara Roldan de Aranguiz

Bertsozaleen gozamenerako plaza izan zen larunbatean Tolosako Leidor aretoa. Ataria Bertso Jaialdiak hartu zuen aretoa, eta Amaia Agirre Arrastoaren esanetara aritu ziren Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Alaia Martin, Oihana Iguaran, Iñigo Gorostarzu *Etxorde* eta Andoni Rekondo.

Atarikide direnentzat eta baltzko Atarikideentzat izan zen lehen mezua Amaia Agirreren ahotik, eskerrak emanez proiektua babesten dutenei, eta beharra eraginez izan beharko luke ten horiei, tokiko komunikabideak ezinbestekoak baititu Tolosaldeaz informatzen jarraitzeko.

Bertso jaialdiari helduz, Agirrek, urtero legez, ondo harilkatuta izan zituen gaiak eta bertsolariak. Hainbatetan, Leidorreko pantaila erraldoia baliatu zuen kantatzeko gaia aurkezteko, eta beste zenbaitetan, gonbidatu bereziak igo ziren oholtzara gai-jartzaileari lana erraztuz.


Ezinbestekoak diren agurren ostean, lehen bertso lana Alaia Martin eta Maialen Lujanbiori egokitu zitzairen. Biak ala biak Gipuzkoako Bertso Txapelketako irabazleak dira, hamarkada batzuk tarteko. Honela, Leidor aretoko pantailan ikus-entzuleek bi bertsolariak txapela jantzi zuten unea berriro bizi ahal izan zuten. Honek, 20 urteren bueltan bertsolaritzan emakumeen presentzia aztertzeak aukera eman zien Martini eta Lujanbiori. Alaiak eskerrak eman zizkion Maialeni erreferente izateagatik; Maialenek bestalde, aitortu zuen hasiera horietan «artilez» osatzen zizutela bertsoak, eta egun, Alaiak «hari finez» ehuntzen dituela.

Andoni Rekondo eta Sustrai Colinaren txanda izan zen jarraian. Kataluniako L'Estadi Teatre 50 urte egin dituela-eta, eta Topic-ek omenaldia egin die la-eta, Agirrek txotxongiloak-Katalunia-Euskal Herria trinomioa aurkeztu zuen gai gisa. Azken batean, Andonik eta Sustrai bat egin zuten aipatzean nazio biak hariz txotxongilo gisa hartuak direla.

Hurrengo gaia Oihana Iguarani eta Iñigo Gorostarzu *Etxorde*-ri egokitu zitzairen. Gaia ematen Haritz Mujika Harituzkide eta laguna izan zuten pantailaz bestalde —orain, Euskal Herrikan pora bizi baita—. Eskualdeko bertsolarientzat Harituz bertsozale taldeak zer suposatzen duen, bertso eskolek zer ekarri duten, eta Euskal Herrikan kanpora bizi-

Berrigintzatik herrigintzara

Ataria Bertso Jaialdia izan zen larunbatean Tolosako Leidor aretoan; bertsozaleak asebeteta geratu ziren gai-jartzaileak eta bertsolariek eginiko lanarekin



Oihana Iguaran eta Iñigo Gorostarzu 'Etxorde', atzean Haritz Mujika dutela, larunbatean Leidor aretoan. N. ROLDAN DE ARANGUIZ

tzeak zertan baldintzatzen duen kantatu zuten. Erabakiak hartzearen alegatua bihurtu zuten bertso lana eskualdeko bertsolariek.

Jarraian, beste bi protagonista igo ziren oholtzara: Itziar Agirrebarrena lizartzarra eta Enrike Zeberio tolosarra. Gorra diren bi pertsona hauek furgonetaz Marokon egindako bidaia kontatzen dute *Isiltasunetik* dokumentalaren bitartez. Bada, larunbatean, Leidorreko oholtzara igo eta interpretearen laguntzarekin kontatu zuten zer suposatzen duen gorra izateak, eta zeinu hizkuntzaren garrantziaz mintzatu ziren. Sustrai Colinaren txanda izan zen; Itziar Agi-

rrebarrena eta Enrike Zeberio- ren esperientzia entzunda, barne hausnarketara eramanez Sustrai. Umorea lagun, entzule bat gor bati buruz hitz egitea, gipuzkoar bat Mauleko bati buruz hitz egitea bezalakoa omen, ezjakintasunetik aritzea bezalakoa. Sustrai isiltasuna besarkada bidez apurtu nahi izan zuen; besarkada bana eskaini zizkien bertso amaieran Itzar Agirrebarrenari, Enrike Zeberiori eta interpreteari.

SERIO ETA EZ HORREN SERIO

Honela, gai sakonagoak eta umorerako tarte gehiago eskaintzen zituztenak tartekatzen joan

ziren Ataria Bertso Jaialdian zehar. Esaterako, Oihana Iguaranek eta Alaia Martinek Tinduferra eramanez zituzten entzuleak, Oporrak Bakean programari esker. Programaren bitartez neska euskaldun baten eta saharar beste baten arteko harremanez abestu zuten. Umorea, bestalde, Andoni Rekondok eta Etxordek jarri zuten. Euren kokalekua oso bestelakoa izan zen: Aralar, tartean parapenteak, putreak, ehiza postuak...

Eta barrez jarraitzeko artea erakutsi zuten Lujanbiok eta Colinak udaltzaingoa eta semearen paperean. Izan ere, hilerria toki aproposa omen botiloitzarra egi-

teko eta reggaetoi musika entzunez festan murgiltzeko. Maialen amak Sustrai: «Datorkizunera-ko toki onean zaude». Eta Sustrai semearen erantzuna: «Bakarrrik falta zaizu pala bizkarrean».

Gonbidatu gehiago oholtzara- tu ziren jarraian. Bertso eskolako hiru ikasle gazte-gazte. Puntu- tan aritu ziren Iguarani, Martini eta Rekondori gaiak proposatuz. Umoretik, batik bat, igaro berri den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa izan zuten hizpide.

Pantaila bitartez iritsi zen arratsaldeko hamaikagarren gaia. Eztizen Artola idazleak *Gurpilak* eleberriaren tarte bat irakurri zuen, eta Amaia Agirrek gaia osatu zuen. Zortzi urteko seme-ari ipuina irakurri, hizkuntza zahar bati buruz hitz egin, eta «gaiztoak eta txintxoak» aipatzen ditu liburuak. Umeak gaiztoak eta txintxoak nortzuk ote diren galdetu zion Alaia Martini. Besteak beste, Alaiak bertsotan kantatu zuen «gaiztoak ahoa esaltzen dutenak» [...] «amesgaizto bihurtzen dute eskubide den hura». Hala ere, seme-ari nahikoa maitasun eskaintzen diola aitortu zuen Alaiak, «nortzuk gaiztoak eta nortzuk txintxoak zuk erabaki dezazun».

Eta umore-seriotasun dikotomia horretan murgildurik, negar eta barre artean jarraitu zuten Leidorreko ikus-entzuleek. Adibidez, Rekondo eta Etxorde bikote gisa aritu ziren, umoretik; Etxordek Berastegi erakutsi nahi izan zion Andoniri, Lola astoa eta guzti preparatu zion hiru eguneko bidaia erromantikorako. Barreak ez ziren falta izan Leidorreko besaulki berdeen- tan.

Eta eguneko gai sakonetako bat Aintzane Artolak jarri zion Oihana Iguarani. Aintzane Artolak eta Oihana Iguaranek Ataria Bertso Jaialdi batean ezagutu zuten elkar, baina gerora askotan bat egin dute oholtza baten gainean, Izan Inurriri esker. Larunbatean ere, Aintzane Artolak tartea baliatu nahi izan zuen osasun publikoa aldarrikatzeko eta Izan Inurrik minbizidun emakumei eskaintzen dien sarea hauspotzeko. Iguaranek, besteak beste, minbizia gainditu eta titi bakarra duen emakume baten ahotik abestu zuen: «Falta zaizkidan atalei esker sentitzen naiz osorik».

Eta honela, larunbatean berri- ro ere Tolosaldeko bertsozaleek bertso jaialdiaz gozatu zuten. Eta aurrerantzean, ATARIA-k osorik jarraituko du, baldin eta Atariki- deen babesa badu.

Euskal eskola publikoaren aldeko aldarria egin dute

Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformak esan du hamaika arrazoi daudela eskola publikoa hautatzeko

Erredakzioa

Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformak Tolosa aukeratu du eskola publikoan matrikulatzearen aldeko kanpaina aurkezteko. Agerraldian, Tolosako Garbiñe Biurrun epaileak eta Zizurkilgo Unai Mendizabal bertsolariak babesa eman diote kanpainari eta esan dute Euskal Herri osoan asko direla «guztiona eta guztiontzat» den hezkuntza publikoaren aldeko hautua egiten dutenak. «Egunotan familiek datorren ikasturteari begira haurra zein eskolatan matrikulatu erabaki behar dute. Guk erantzuna argi dugu: apustu sendoa egiten dugu eskola publikoaren alde, eta galdera horren erantzunaren bila zalantzan dabilzan familiei eta baita gizarte osoari ere, eskola publikoa hautatzeko hamaika arrazoi helarazi nahi dizkiegu».

Horiek horrela, eskola publikoa unibertsala dela aldarrikatu eta irekia zein doakoa den oinarritzko hezkuntza eskaintzen duen bakarra dela nabarmendu dute. Era berean, etxeko hizkuntza edozein dela ere euskara duela topagune eta euskal kultura duela ardatz esan dute; «euskaratik eta euskaraz hezteko tokia izango da eskola publikoa». Haurrei egungo jendartean bizitzeko tresnak ematen dizkiela eta ezberdinen arteko elkarbizitza sustatzen duela gaineratu dute. Inklusibitatea lantzen duela, komunitate osoak parte hartzen duela, parte hartzailea dela eta elkartasuna duela ardatz gehitu



Larunbatean Tolosan egin zuten agerraldiaren une bat. BERRIA

dute, eta berritzailea dela esan dute: «hobekuntza eta proposamen anitzi irekia dago. Elkarrekin eta elkarrengandik ikasten da, talde lanari garrantzia emanez». Bukatzeko begirada feminista duen ereduak dutela esan dute eta ingurunearekin guztiz bat egiten duela, «gure herri txikietan edo hiri handietako auzoetan komunitate izaera indartuz».

Pertsona ezagun ugari bat egin dute eskola publikoaren aldeko aldarriarekin: Oihana Iguaran bertsolariak eta Irantzu Mantxo aktoreak, Katixa Agirre, Jon Arretxe eta Txani Rodriguez idazleak, La Basu, Yogurinha Borova eta Olatz Salvador kantari eta musikariak, Xabier Euzkitze, Kepa Iribar eta Maitane Urbietakazetariak, Aner Peritz Euzkitze bertsolariak edota Sara Cozar, Aitziber Garmendia, Asier Zinkunegi eta Asier Hernandez aktoreak.

GREBA

Bestalde, bihar hasiko dira LAB, Steilas, ELA eta CCOO sindikatuek unibertsitateaz kanpoko hezkuntza publikoan deitutako greba egunak. Hamabi egun izango dira guztira; lau egunetan egingo dituzte lanuzteak irakasleek, beste lautan Haurreskolak partzuergoek eta beste lautan garbitzaileak eta sukaldariak.

Sindikatuak adierazi dute 15 urte daramatzatela lan baldintzak arautzen dituzten hitzarmenak eguneratu gabe, «eta horrek gure lana modu egokian egin ezin izango duela». Lan zamak arintzeko neurriak adostea, erretiroa aurreratzeko plantillen gazteberritze plana garatzea, galdutako erosahalmena berreskuratzea edota kalitatezko berdintasun eta hezkidetzaren egonkorra garatzeko baliabideak jartzea dira aldarrikapen nagusiak.

«Arrisku larrian jartzen dute herritarren osasuna»



Tolosako osasun zentroan, iragan ostegunean, eginiko elkarretaratzea. A. IMAZ

Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformak deituta, manifestazioa izango da otsailaren 1ean, hiru lurraldetan

Erredakzioa

Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformak (OPA) deituta elkarretaratzea egin zuten ostegunean Tolosako anbulatorioaren aurrean. Hiru puntu nagusi azpimarratu dituzte mobilizazioak arrazoitzaerako garaian: «110 osasun-zentroei eragin dieten azken murrizketak; lehen mailako arretara bideratutako baliabide urriak; otsailaren 1ean Osasun publikoaren alde: Promesa gehiagorik ez! Konponbideak orain! lelopean egingo den manifestazioan parte hartzeko deia».

OPAk salatu duenez, azken Gabonetan «EAE-ko 110 osasun-zentrok murrizketak izan zituzten ordutegietan eta arreta medikoan, eta egoera hori larriagotu egin da arnas infekzioen gorakadaren testuinguruan». Neurri horien ardura, aurreko gobernuarena eta oraingoarena

dela esan dute: «Aurrekoek jarri zituzten eta oraingoek jarraipena eman diote; arrisku larrian jartzen dute herritarren osasuna». Agintariei, hitz hutsak baino konponbideak eskatu dizkiete: «Promesak egin arren, egungo Eusko Jaurlaritzak mantendu eta larriagotu egiten du bere aurrekoek hasitako murrizketa eta pribatizazio politika. 2025eko aurrekontuek argi erakusten dute: ehunka milioi euro osasun pribatura bideratzen dira, 2024ko partida handituz».

Horren aurka azaldu da herri plataforma: «Ezin dugu onartu osasun publikoa, unibertsala, kalitatezkoa eta doakoa izateko dugun eskubidea mehatxupean jarraitzea». Horri erantzuna emateko, hiru manifestazio deitu (Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan) ditu otsailaren 1ean. Gipuzkoako Donostian izango da, 17:00etan, Bulebarretik abiatuta.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

Arantxa
Ugarte Guridi
«Atita»



2025eko urtarrilaren 18an hil zen.

Maite zaitugu.
Zure familia.

TOLOSA, 2025eko urtarrilaren 21ean.

Leyre Carrasco Berastegi

Berastegiko Udalak 1.691.576,39 euroko aurrekontua izango du aurten, iazkoa baino 200.000 euro gehiago. EH Bildu taldeko zazpi zinegotzien aldeko botoekin eman zioten behin behineko onarpena aurrekontuari azaroaren 28an. Sarretan izandako igoera nabarmendu du Andoni Zuriarrain alkateak, eta esan du 1.100 biztanletik beherako herria delako lortu dutela gehigarri hori. Honela, partida guztiak indartu dituzte.

Diru horrekin, besteak beste, larre komunalaren proiektua garatzen jarraitu nahi dute, eta 30.000 euro jarriko dituztela zehaztu du alkateak. «Urtero larre komunaletako eremua lantzen eta zabaltzen saiatzen gara eta aurten ere hori egingo dugu, izan ere, etengabe jarraitu beharra dago».

Baserri bideak konpontzeko 40.000 euroko partida ere jarriko dute, eta herriko zenbait eremutan hobekuntza lanak ere egingo dituzte, tartean, errepidetik kanposantu sarrera bitartean dagoen eremuko lurra berrituko dute. Auzoetako argiztapenarekin ere jarraituko dute. Aurten, Izotzalde auzoaren

Berastegik 1,7 milioi euroko aurrekontua izango du aurten

Iaz baino 200.000 euro gehiago izango ditu Berastegiko Udalak; 1.100 biztanletik beherako herria delako lortu dute gehigarri hori eta arlo guztiak indartzeko erabiliko dute



Berastegiko udaletxea kanpotik. ATARIA

inguruan dagoen gunea argiztatuko dute, besteak beste, eremu horretan argiteria gehitzeko eskaera ugari jaso baitituzte.

Beste partida bat Zubizabaleta eraikineko beheko solairuan eraldatze-zentroa, sukaldea eta jangela eraikitze bideratuko dute. Aurten egingo dutena «espazioaren moldaketa eta prestakuntza» hori izango dela zehaztu du alkateak, eta datozen urteetan eraikina ekipatuko dute.

Berdintasun partida ere indartuko dutela esan du alkateak. «Berdintasun partida orokortuta genuen eta aparteko partida sortu dugu arloari ekonomikoki bultzada bat eman eta Askamare Talde Feministarekin elkarlanean berdintasunean pausoak ematen jarraitzeko asmoz», azaldu du.

Horrez gain, tokiko garapenaren prozesuarekin jarraituko dute. Lantzen ari direnildoetan sakonduko dute, besteak beste, ondarearena, artzaintzarena, bertako produktuen ingurukoa eta bisitarien harreraren lanke-ta. Eta azkenik, herrian garrantzitsuak diren kultur eta kirol ekitaldiekin aurrera egingo dute.

Ibarrako diagnostikoa aurkeztuko dute

Leyre Carrasco Ibarra

Ibarrako 2030 Agenda osatzeko bidean lehen urratsa eman du udalak eta herritarrei aurkeztuko die egindako lana, urtarrilaren 23an kultur aretoan egingo duten bileran. Ibarrako Udalak ikusi du herri bezala, ekarpena egiteko aukera baduela Nazio Batuen Elkarrekin onartutako Garapen Iraunkorreko Helburuei eta 2030 Agendari. Horrela, Ibarrako 2030 Agendaren 2024-2030 Ekintza Plana egiteko konpromisoa hartu du, *Ibarra Agenda 2030. Amesten dugun herria* deituriko prozesuaren barnean.

Prozesuaren lehen fasean, go-goeta prozesua abiatu dute, «globalizazioak dakartzan gizarte, ekonomia eta ingurumen erronken aurrean, herriaren egoera aztertze eta nora iritsi nahi dugun jakiteko». Azterketa hori egiteko, herritarren eta herriko eragileen partaidetza eta konpromisoa «ezinbestekoa» izan dela esan dute udaletik.

Herriko ikuspegi eta pertzepzio ezberdinak jaso, eta diagnos-



Ibarrako ikuspegia. J.MIRANDA

tikoa osatzeko, Ibarrako herritarren sektore ezberdinekin elkarriketaketan zintuzten iragan urteko urrian eta azaroan. Hala, adinekoekin, merkatariekin, landa eremuko auzokideekin, gazteekin eta emakume talde batekin elkartu ziren.

Herriaren azterketatik atera duten argazki horretatik abiatuta, helburu jasangarriak lortze aldera, Ibarrarentzako ibilbide-orri bateratu bat eskaini nahi du udalak, herriko eragile guztien adostasuna izango duena. Hala, bilera batera deitu ditu herrita-

rrak, hurrengo ostegunean, hilaren 23an, 18:30ean, kultur aretoan, diagnostikoaren emaitzak aurkeztu, 2030era begirako ikuspegi landu, eta lan-ildo nagusiak zehazteko. «Bilera horretan jasoko diren herritarren ekarpenak beharrezkoak izango dira

Ibarrako errealitatera egokitutako 2030erako plangintza osatzeko», esan dute.

Herri bilera horretara herritar guztiak deiturik daude, eta parte hartzeko interesa dutenek 605 757 687 telefono zenbakira deitu dezakete.

Milurte bateko erakusketa Donostiako San Telmon

‘Ipuscua 1.000 urte’ erakusketa jarri dute San Telmo museoan; hiru une kronologikotan banatu dute eta maiatzaren 11ra arte egongo da ikusgai

Erredakzioa

Gipuzkoako Foru Aldundiak *Ipuskoa. Izanetik izena 1025-2025* ekimena aurkeztu zuen hilaren hasieran, 'Gipuzkoa' hitza jasotzen duen lehen dokumentu idatziaren milurtekoa ospatzeko; eta horren barruan gauzatu dute Donostiako San Telmo museoan *Ipuscua 1000 urte. Ipuscuatik Gipuzkoara. 1025-2025* erakusketa. Joan den larunbatean aurkeztu zuten, eta maiatzaren 11ra bitarte egongo da publikoarentzat ikusgai antzinako komentuaren bi kaperatan.

Erakusketak azken mila urteetan barrena egindako bidaia proposatzen du, hain zuzen, 1025. urtean hasi eta gaur egun arte. Hori horrela, bildutako elemen-

tuak erabili dituzte denbora horretan Gipuzkoa entitate geografiko lausoa izatetik nortasun juridiko propioa zuen elkarte egonkor bat izatera nola igaro zen azaltzeko. Erakusketaren edukiak elkarlanean landu dituzte San Telmo Museoko zein Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gordailuko teknikariek eta erakusketaren Iosu Etkezarraga komisarioak. Hori gutxi ez, eta aholkulari lanetan izan dute Mikel Alberdi dokumentalista eta historialaria.

LURRALDE ETA ANTOLAMENDU

Esposizioak historian zeharreko bilakaera azaltzen du bi ardatzetan egituratuta: lurraldearen geografia eta gobernu era. Baina, horiez gain, biltzen ditu beste al-

derdi batzuk ere, hala nola, ekonomia eta filosofia politikoa, zeinak, era berean, eraldaketa hori hobeto ulertzen laguntzen duten.

1025ean lehen aldiz aipatutako Ipuscuatik abiatuta, XIV. eta XVI. mendeen artean lurralde, erakunde, gizarte eta politika errealitate berri gisa eratu zen Gipuzkoara igarotzen da. Azkenik, lurraldeak bizi izandako aldaketak gainetik aipatzen dira, XIX. mendean sistema liberal konstituzional berrian sartzeko.

HIRU ALDIKO MILURTEA

Erakusketa hiru une kronologikotan antolatzen da: batetik, ize-

naren esanahia eta urte horretan zergatik aipatu izana azaltzen dute, besteak beste; bigarrenik, lurraldea eta erakundeak nola finkatu ziren landu dute; eta, azkenik, XIX. mendeko «aldaketa garaia» dute hizpide. Hiru atalak osatu dituzte lurraldearen inguruan, mapa eta ondare balio handiko pieza arkeologiko zein historiko nabarmenak barne: armagintzako piezak, maketak, nobleziako armarriak, dokumentuak, liburuak eta erliebeak.

Gainera, bi bideo (EITB Media, Elhuyar eta Bilboko Arkeologia Museoaren kortesia) eta Martin-txo Altzuetak egindako ilustrazioak gehitu dira.

Pieza gehienak San Telmo Museoan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko bildumetatik datoz, eta horiei beste erakunde eta entitate batzuen maileguak gehitu zaizkie: Zaragozako Unibertsitateko Liburutegia, Donostiako Udal Liburutegia, Euskal Itsas Museoa, Zumalakarregi Museoa, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Artxibo Orokorra, Koldo Mitxelena Kulturunea eta Tolosako Udal Artxiboa.

Erakusketa museoan elizan amaitzen da, eta azaldutako edukia osatzen dute Gipuzkoako eta Euskal Herriko historiari lotutako 11 eszena irudikatzen dituzten bertako Serten mihiseek.



San Juan de la Peñako liburu gotikoa, non 'Ipuscua' hitza azaltzen den. DONOSTIA KULTURA



ISILTASUNA ENTZUN ETA IKUSARAZTEKO

Jaiotzetik gorra diren bi lagunek Marokon egindako bidaia kontatzen du *Isiltasunetik* dokumentalak eta ostiralean, urtarrilaren 24an, estreinatuko dute Tolosako Leidor aretoan. 20:00etan izango da, doan, eta proiektzioa bukatutakoan bidaian parte hartu zutenekin solasaldia egingo dute. Ezkerrean, dokumentalaren egileak Marokora egindako bidaiaren une batean. Eskuinean, Enrike Zeberio eta Itziar Agirrebarrena gorra, Andu Martínez de Rituerto Tolosako alkatea, Telmo Basterretxea dokumentalaren zuzendaria eta Josu Izuetza bidaia gidaria dokumentalaren aurkezpenean. JOSU ARTUTXA / ATARIA

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

17. jardunaldia	
Auzoak Zierbena	2
Lauburu Ibarra	2

Sailkapena

1. Picassent	41p
2. Otxartabe	40p
3. Vulcanizados Ruiz	39p
4. Lauburu Ibarra	36p

Hurrengo jardunaldia

Lauburu (4) – Aurrera de Vitoria (14)

HIRUGARREN MAILA

15. jardunaldia

Tolosala – Gernikako Lagunak	---
Albardero-R. – Lauburu Ibarra	7-3

Hurrengo jardunaldia

Tolosala (6) – Usansolo (11)	
Mondrate (2) – Lauburu Ibarra (15)	

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

16. jardunaldia

Tolos CF Eskubaloia	30
Labarra-Nikol Pulpo	25

Sailkapena

1. Anaitasuna	29p
2. Contazara Zaragoza	26p
3. Romo Broker Kirol	24p
7. Tolosa CF Eskubaloia	20p

Hurrengo jardunaldia

Anaitasuna (1) – Tolosa CF Esk. (7)

GIPUZKOAKO 1. MAILA

12. jardunaldia

Ordizia Biok2.com	20
Tolos CF Eskubaloia	19

Sailkapena

1. Txingudi Zubieder	16p
2. Saieko Mon Paperdenda	16p
3. Ordizia Biok2.com	10p
4. Tolosa CF Eskubaloia	4p

Hurrengo jardunaldia

Tolos CF Eskubaloia (4)	
Urola (5)	

Futbola

3. FEDERAZIO MAILA

17. jardunaldia

Deportivo Alaves B – Tolosa CF 2-2

Sailkapena

1. Athletic Club C	39p
2. Bizkerre	37p
3. Arratia	36p
9. Tolosa CF	22p

Hurrengo jardunaldia

Tolos CF (9)	
Osasuna C (15)	

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

GIZONEZKOAK

17. jardunaldia

Tolos CF – Deusto	2-1
-------------------	-----

Sailkapena

1. Zarautz	34p
2. Añorga	33p
3. Oiartzun	30p
12. Tolosa CF	21p

Hurrengo jardunaldia

Tolos CF (12) – Añorga (2)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAKUMEZKOAK

15. jardunaldia

Tolos CF B – Elgoibar	3-0
-----------------------	-----

GIZONEZKOEN GORENGO MAILA

14. jardunaldia

Billabona – Ostadar	1-1
Roteta – Danena	1-1

EMAKUMEZKOEN GORENGO M.

14. jardunaldia

Debagoiena Bailara – Aiztondo 3-2

GIZONEZKOEN 1. ERREGIONALA

14. jardunaldia

Intxurre – Tolosa CF B	5-2
------------------------	-----

SASKIBALOIA

HIRUGARREN FEB MAILA

13. jardunaldia

Iruki TAKE	79
Ulacia	64

Sailkapena

1. Castil. d. Gorraiz Val. d. Egues	11-2
2. LBC Cocinas.com	9-4
3. Solares	9-4
4. Iruki TAKE	8-5

Hurrengo jardunaldia

Iruki TAKE (4) – Mondragon Uni. (7)

EUSKAL LIGA 2. MAILA

14. jardunaldia

Eguzkitza Sagardotegia TAKE	37
Liceo Monjardin	43

Sailkapena

1. Getxo SBT	12-2
2. Valle de Egues	10-4
3. Conert Facility Araba	9-5
9. Eguzkitza Sagardot. TAKE	2-12

Hurrengo jardunaldia

Conert Facility Araba (3)	
Eguzkitza Sagardotegia TAKE (9)	

GIPUZKOAKO 1. MAILA

11. jardunaldia

Añorga Saski	69
TAKE Orbela Taberna	50
Elorri-Aldapa	63
Biotz Aloña Mendi	53

Bidearte baserria taldea da irabazlea

Herri kirol erronka egin dute Orendainen herritarren artean, hiru taldetan banatuta; Bidearte baserriak lortu du lehen postua, bigarren Eltxo zaharrak izan dira eta hirugarren Eltxo gazteak

Erredakzioa Orendain

Ikusmina sortu zuen Orendainen herritarren artean egindako herri kirol probak, eta jendeak bete egin zuen larunbatean Urri-zondo pilotalekua. «Ez dut uste beste ekitaldiren batean hainbeste jende egon denik», esan du Migel Angel Arsuagak, Eltxo zaharrak taldeko kideak. Proba bera emozio handikoa izan zen, azken unera arte ez baitzen erabaki bukaerako sailkapena. Bidearte baserria taldekoak nagusi izan ziren, bigarrenari minutu eta segundo batzuetako aldea atereaz. Bigarren postu hori oso borrokatua izan zen eta azkenean Eltxo zaharrak taldeak eraman zuen, Eltxo gazteak taldeari zortzi segundoko tarte kenduz.

«Oso polita izan zen, emozio handikoa, eta gazteei irabaztea lortu genuen gainera», esan du Arsuagak. Bertakoek parte har-



Orendaingo pilotalekuan egindako herri kirol jaialdiko parte hartzaileak. ATARIA

tzen zuten herri kirol probarik aspaldian ez zen egiten herrian. «Lehen guk antolatu eta parte hartzen genuen, eta gazteei esan genien ea ez ziren animatuko zerbait egitera. Horrela sortu zen larunbateko ekitaldia», azaldu du Arsuagak. Herri kirol proba

bukatu eta gero, afaria egin zuten herriko Eltxo elkarteak eta 70 pertsona inguru elkartu ziren. Bertan, Eltxo zaharrak taldekoek aprobetxatu zuten gazteei zirikatze. «Orain beraien esku dago noiz egin nahi duten hurrengo erronka», gehitu du Arsuagak.



MAISUA SOKAREN GAINEAN

Ikusmira sortu zen ostiral arratsaldean Oria ibaiaren bazterrean, Alegian. Izan ere, Alegiako elizatik hasi eta Orendain bideko errepidearen gainetik soka bat jarri zuten zintzilik eta gainean, highline jardunean ibili ziren orekari ausartak. Alegiako ikastetxeko ikasleak harriturik zerura begira; izan ere, soka, grabitatearen kontra borrokatuz euren irakasle Iker ibili baitzen. Animoak, txaloak eta ariketa proposamenak ez zitzaizkion falta izan Oriaren bazterretik. Erakustaldiaren ondoren, Peligro. No asomarse dokumentala proiektatu zuten Elizpe zinean, Daniel Cascales zuzendaria bertan zela. N.R.A.

Urteko lehen izerdi tantak bota dituzte txikienek

Ero-Etxe elkarteak urtero antolatzen duen krosa egin zen igande goizean San Frantzisko pasealekuan; hogeita hamaseigarren edizioa ospatu dute aurtengoan eta sariak ere banatu dituzte



Igande eguerdian aritu ziren Tolosako kaleetatik korrika hainbat gaztetxo. L. CARRASCO

Leyre Carrasco Tolosa

Tenperatura baxuei aurre egiteko, lasterka ibili dira eskualdeko korrikalari txikiak. Izan ere, igande goizean egin zuten Ero-Etxe elkarteak urtero antolatzen duen krosa. Hogeita hamaseigarren edizioa ospatu zuten aurtengoan, urteroko arrakastarekin. Horren erakusle izan zen parte hartze maila handia eta errepidearen bi aldeetan zegoen jende andana.

Urteko lehena izaten da Tolosan, eta beraz, tradiziozko hitzordua bilakatu da askorentzat. Korrikalari gehienak tolosarrak izaten badira ere, eskualdeko beste herrietatik edota Gipuzkoako herri desberdinetako ikasteetxeetatik ere hurbiltzen dira.

Ohi moduan, San Frantzisko pasealekuan izan du probak irteera eta helmuga, eta sei lasterke-ta egin zituzten guztira. Infantil

SAILKAPENA

Mutil infantilak

1. Beñat Iraola (Laskorain)	6.52
2. Ager Sanchez (Orixe)	7.05
3. Fermintxo Solinis (Laskorain)	7.07
4. Xuban Juantorena (Orixe)	7.13

Neska infantilak

1. Amaia Lertxundi (Orixe)	7.46
2. Irati Artutxa (Laskorain)	7.50
3. Irina Mendizabal (Laskorain)	7.56
4. Irati Uranga (Orixe)	8.01

Mutil alebinak

1. Ametz Zubillaga (Muñagorri)	4.56
2. Xabier Larrañaga (Samanie.)	4.57
3. Aiur Artetxe (Uzturpe)	4.59
4. Peter Jared (Jakintza Ordizia)	5.04

mailako (2011-2012) mutil eta nesken probak izan ziren lehenak, eta hauek 1.900 metro egin behar izan zituzten; alebin mailako (2013-2014) mutil eta nesken probak izan ziren ondoren,

Neska alebinak

1. Elaia Esnaola (Laskorain)	5.22
2. Aritz Aramendi (Samanie.)	5.23
3. Iraide Antolin (Uzturpe)	5.28
4. Leire Gereñu (Laskorain)	5.33

Mutil benjaminak

1. Leo Castillo (Laskorain)	4.10
2. Manex Aristimuño (Laskor.)	4.13
3. Hodei Elola (Laskorain)	4.19
4. Julen Saizar (Laskorain)	4.19

Neska benjaminak

1. Zuriñe Barriola (Laskorain)	4.39
2. Arene Ibarguren (Herrikide)	4.41
3. Ane Aramberri (Herrikide)	4.44
4. Elene Iztueta (Samaniego)	4.47

eta hauek 1.400 metro egin zituzten; eta, azkenik, benjamin mailako (2015-2016) mutil eta nesken probak izan ziren, eta txiki-ekienek 1.100 metroko ibilbidea egin behar izan zuten.



Maier Olano, Benidormeko Munduko Kopako proban. RFEC

Maier Olanok 15. postua lortu du Munduko Kopan

Erredakzioa Tolosa

ZU-K Limousin taldeko Maier Olano txirrindulari tolosarrak Benidormen (Herrialde Katalan-ak) asteburuan jokatu zen ziklo-kroseko Munduko Kopan 15. amaitu zuen. Junior mailan parte hartu zuen Olanok, eta 44.09ko denbora egin zuen, ira-

bazlearengandik 2.02ra helmugaratuz.

Frantziako selekzioko Lise Revol izan zen irabazlea (42.07), ondoren Kanadako selekzioko Rafaele Carrier helmugaratu zen, hamar segundora. Hirugarren postuan Mae Cabaca izan zen, Herbeheretako selekzioko kidea, 18 segundora.

Goitik eta behetik estutu da binakakoa

Erredakzioa

Binakako Pilota Txapelketaren hamargarren jardunaldia izan da jokoan asteburuan, eta sailkapena estutu egin da goi aldean zein beheko aldetik. Peña II.a tolosarrak eta Albisuk liderrei irabazi zieten, Laso eta Iztueta tolosarrari, 22-15. Hori horrela, Lasok eta Iztuetak sailkapen buru jarraitzen dute zortzi garaipenekin, eta Peña II.a eta Albisu seigarren postura igo dira, hiru garaipenekin.

Hiru garaipenekin daude, baina sailkapenean postu bat jaitzita, hau da, zazpigarrenen, Altuna III.a amezketarra eta Aranguren. Asteburuan 11-22 galdu zuten Ezkurdia eta Rezustaren aurka. Azken hauek bigarren jarraitzen dute, baina dagoeneko zortzi garaipen dituzte, eta puntuetara

Laso eta Iztuetarekin berdinduta daude.

Eskualdeko bi aurrelari elkarren aurka aritu dira, eta Artola alegiarrak eta Mariezkurrena II.ak irabazi dute partida, 12-22 Jaka lizartzarraren eta Imazen aurka. Artolak eta Mariezkurrena II.ak laugarren postuan jarraitzen dute, sei garaipenekin. Jakak eta Imazek bosgarren postuan jarraitzen dute, baina lau garaipenekin, eta atzetik dituzten bi bikoteak puntu bakarrera.

Beste partidari Elordi eta Zabaletak garaipen berri bat lortu dute, 22-18, Peio Etxeberria eta Martijaren aurka. Elordi-Zabaleta zazpi garaipenekin hirugarren daude, puntu bakarrera lehen bi bikoteengandik, eta Peio Etxeberriak eta Martijak sailkapeneko zuloan jarraitzen dute, garaipen bakarrarekin.



ASTEARTEA, 2025EKO URTARRILAK 21
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Eider Aierbe Isasti
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



ASTEARTEA 21

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Irene Larrañaga Arruti argazkilariaren *Insuladas* erakusketa, Gurea antzokian..
Tolosa. L'Estaquirot Teatreren 50 urte erakusketa Topic zentroan. Bost hamarkada hauetan zehar, L'Estaquirot Teatre antzerki komunitatearentzat inspirazio iturri izan da, bere ekoizpen berritzaileekin eta bikaintasun artistikoarekin duen konpromiso sendoarekin ikusleak liluratuz.
Tolosa. Mikel Garmendia Uranga alegiarraren pintura erakusketa, 3 tabernan. Oleoak collage ukituarekin. Asteazkenetik igandera, 17:30etik aurrera. Asteburuetan 12:00etatik aurrera.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia: Iker Ibarluzea adituaren eskutik.
10:00. Patxadaz: elkarriketak.
12:30. Pasahitza: eskualdeko albisteak.
18:00. Amalurra: ingurumenari buruzko saioa..
20:00. Beste munduko musikak.

28 KANALA

11:00. Elkarriketap
- Galder Gonzalez.
13:30. Tolosaldea Gertutik.
17:00. Eugeniren txokoa.
19:00. Datuetatik tiraka
- Komertzio txikia.
21:30. Tolosaldea Gertutik.
22:00. Sormenetik
- Arkeologia eta euskara.

FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
Tolosa. Gauekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Egun osoan zehar erdi eta goi-mailako hodeiak ostarteekin

tartekatuko dira, non hodei hauek ugariagoak izango diren arratsaldean, tantaren bat botatzea baztertu gabe, bereziki azken orduetan. Goizean ateri egongo da. Hego-haizeak zakar joko du, bereziki mendi inguruetan. Tenperaturak gora egingo du, 13-15 graduan joz goia egunaren erdiko orduetan.



Bihar. Goizean erdi eta goi-mailako hodeiak ostarteekin tartekatuko dira eta eguraldi lasaia eta atsegina nagusituko dira. Arratsaldean zehar aldiz hodeiak ugaritzen joango dira, azken orduetan zerua estalirik geratuko da eta gauean euritara joko du. Hego-mendebaldeko haize zakarra ibiliko da eta tenperaturak gora egingo du, 14-16 graduan joz goia.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



SAN ANTON ETA SAN SEBASTIAN GUREAN

Herri gutxitan mantentzen dute San Anton egunez animaliak bedeinkatzeko ohitura, eta horietako bat da Berastegi. Ostiralean izan zen San Anton, eta ermitara zakurrak, txerrikume bat eta behi bat eraman zituzten —goian ezkerrean—. Atzo, berriz, San Sebastian eguna izan zen, eta Berastegin, Leaburun eta Orendainen ospatu zuten. Orendainen —behean—, kalejiran ermitara joan ziren, eta Leaburun —goian eskuinean— dantzariak izan ziren mezaren ostean. I.T./AJ

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

Prezioa

17€
35€
51€
56€

Atarikideek

13€
25€
36€
42€

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez